



GAZTETXOEN ASTEKARIA • 1.134. ZENBAKIA  
2025eko urtarrilaren 4a, larunbata

# mantangorri ASTEKO ASMAKIZUNA

Nire gorputzean zura eta ikatza,  
nire izena: \_ \_ k \_ \_ z \_ .

**Zer ote?**



# 'Behinola', 25 urteko bidaiaria

Asmakizunaren jatorria: Mihi puntaren puntan. Urteari itzulia 365 igarkizunetan. Xabier Olosa eta Higinia Garai (Elkar).

Erantzuna: Arkatza. ●●●



## ZUEN TXOKOA



Zorionak, **Garazi!** Bihar 9 urte beteko dituzu, gure pitirrintxo! Gure neska txikia handitzen ari zaigu. Infituraino eta buelta maite zaitugu! **Maddi, aitatxo eta amatxo.**



Behatz bat, bi, hiru... bi eskukada bete urte beteko dituzu, **Maddi**, astearlean: urte askotarako! Besarkada estu bat **Arhaneren, amatxoren eta aitatxoren partez.**




Zorionak, **Xune!** Urtarrilaren 6an, 4 urte beteko dituzu. **Muxu handi bat etxekoan partez!**



Zorionak, **Libe!!!** 6 urte jadanik. Zenbaki polita. Sorginen artean sorginena eta bihurriena. **Amaren eta aitaren argia.** Gozatu bizitzaz, izan zoriontsu eta batez ere inoiz ez utzi zaren modukoa izateari. Infitu eta gehiago maite zaitugu.



Zorionak, **Ekai!** 3 urte handi eta eder gure ondoan, beti umoretsu eta jolas gogoz. Segi berdin! Musu handi-handiak **aita-amen, aitona-amonen eta anai-arreben partetik.** Ondo ospatu!!!



**Zorion agurrak** argitaratu ahal izateko, gogoan izan mezuak astearte arratsaldea baino lehen jaso behar ditugula. Asteartetik aurrera jasotzen diren mezu guztiak hurrengo asteko zenbakian argitaratuko ditugu.



Zorionak, **Unax**, jadanik 10 urte! Segi hain jatorra izaten eta gure bizitza alaitzen. **Asko asko maite zaitugu.**



Maddi Barandiaran




Markel Arreitunaindia



Aretz Urkiza Fernandez




Kattalin Barandiaran



Maren Barandiaran



Lea Lopez de Lacalle



Nahia Zenarrutzabeitia



**ERREPORTAJEA** : 'Behinola' aldizkaria

# Etorkizuna irakurtzen

**H**auxe da haur eta gazte literaturaren ezaugarrietako bat, Miriam Luki aldizkari-ko koordinatzailearen hitzetan: «Haur eta gazte literaturaren ezaugarri nabarmenena da bitartekari bat behar dela. Helduok aukeratu dugu haurrek zer irakurriko duten». Esaterako, bitartekariak dira Durangoko azokako erakusmahai (Bizkaia) liburuak kokatu dituzten pertsonak, haiek aukeratu baitute zein liburu jarri begien bistan eta zein ez; bitartekariak dira gurasoak, liburuak irakurtzen baitizkiete oraindik irakurtzen ez dakiten haurrei; eta bibliotekariak, irakasleak, sortzaileak...

1999an sortu zuten aldizkaria, eta, urtero, bi ale argitaratzen dituzte: bata ekainean, eta bestea abenduan. Ibilian-ibilian, 50. alera iritsi dira. Erredakzio batzorde bat da aldizkariaren bihotza, eta hark erabakitzen du hurrengo seihilekorako gaia. Lore Agirrezabal, Karla Fernandez de Ganboa, Lorena Martinez Oronoz, Mikel Aierbe, Igor Idoate eta Mireia Delgado dira talde horretako kideak; Asun Agirianok, berriz, taldea utzi berri du, baina bertan egon da sorreraz geroztik. Gai ugari heldu diete 25 urte hauetan: edizioari, itzulpenari, antzerkiari, haurrentzako ez-fikzioari eta beste hainbat konturi buruzko



**Haur batek eskuetan liburu bat hartu orduko, diz-diz egiten diote begiek. Baina liburu hori ez da ausaz iristen, heldu batek ematen die bultzada. Heldu horiek trebatzeko sortu zuen Galtzagorri elkarteak 'Behinola' aldizkaria, duela 25 urte; 50. alea argitaratu dute abenduan.**

aleak ondu dituzte. Aukeraketa nola egiten duten azaldu du Lukik: «Euskarazko literaturaren panoraman dauden gaiak lantzen ditugu; hemen oraindik landu gabeko gaiak baldin badira, kanpora bila joaten gara, gurera ekartzeko».

Esate baterako, azken aleetako batean, liburu objektuak landu dituzte. Izan ere, batzuetan, haurrentzako liburuak objektuak dira bere horretan. Adibidez, zuhaitz forma dutenak: «Ez daukate hitzik, baina zuhaitza zabaldu egiten da, akordeoi bat bezala, eta urtaroak lantzeko balio du: batzuetan hostoak dauzka, besteetan erori egin zaizkio, edo loratu...».

Eta gai jakin bati buruzko erreportajeak lantzeaz gain, liburuei buruz ere idazten dute, *Iruzkinak* atalean. Irakurketa mintegi bat daukate horretarako, eta liburuen aukeraketa bat egiten dute ale bakoitzean. «Mintegia irakurle talde bat da, eta urtean euskaraz ateratzen den guztia irakurtzen dute, galbahea egiteko. Gero, iruzkinak eginez, narratibari eta ilustrazioei buruzko argudioak ematen dituzte».

Diseinu zaindua du aldizkariak, eta ez kasualitatez; kolaboratzaile ugari parte hartzen dute, eta dagoeneko sare bat osatu dute. Ilustratzaile eta idazle horientzat «erakusleho» edo «plaza bat» dela esan du Lukik, eta album



ilustratuak ere sortu izan dituztela elkarrekin gerora, aldizkarirako egindako lanei esker.

Abendukoa da 50. alea, baina 49. aletik ireki zioten bidea. Izan ere, ekainekoan, etorkizunari buruz hausnartu zuten erredakzio batzordeko kideek, betiere haur eta gazte literaturari lotuta. «Kide



bakoitzak ezizen bat hartu genuen, eta forma geometriko bat: ni hiruki bat nintzen, adibidez». Hala, albiste txoroak argitaratu zituzten: haurrek eta gazteek nazioarteko gerra bat sortu zutela, heldukraziaren aurkakoa, adibidez. 50. alea, ordea, berezia izatea nahi zuten. Horrek ere etorkizu-

nari buruzkoa izan behar zuen, baina haurren esku utzi nahi zuten urteurreneko ale berezia sortzea. «Gu gara beti haur eta gazteei buruz hitz egiten dugunak; oraingoan nahi genuen belarria jarri, eta haiei ahotsa eman». Hala, etorkizunari buruz hausnartzen jarri zituzten, eta margoak,


arkatzak eta irudimena martxan jarri zituzten gazteek, Bilboko Azkuna zentroan egindako tailer batean eta Oiartzungo ehuntze espazioan (Gipuzkoa) egindako beste batean.

Emitza biribila osatu dute: ortzi muga koloretsu bat marraztu dute, geruza ugarikoa, eta hori

eraman dute 50. zenbakiaren azalera. Dena den, ondorioak «nahikoa gogorrak» direla onartu du Lukik. Izan ere, aldizkariko lantaldearen hipotesia zen haurren etorkizunarekiko ikuspegia baikorragoa izango zela heldue-na baino: «Ezkorak dira, ordea. Gailu teknologikoei lotuta, esaten dute etorkizuna ez dakitela nolakoa izango den, eta gobernuak kontrolatu egin beharko lukeela horien erabilpena, gaixotzen ari direlako; badute kezka, baita ere, ea robotek kontrolatuko ote dituzten...». Hori eta beste hainbat kontu topatu daitezke aldizkariaren 50. zenbakian.


Aurrera begira, orain bezala euskal sortzaileen plaza izatea dute helburu, eta begi bat barrura eta beste bat kanpora begira dutela jarraitzea. «Haur eta gazte literaturan gure bitartekariarentzat interesgarria den hori guztia ekartzen eta lantzen jarraitu nahi dugu». Egun bat ere badute agendan idatzita: otsailaren 8an, festa bat egingo dute San Telmo museoan, Donostian. Egindako bidea ospatzeko eguna izango da. 25 urte ez baitira egunero betetzen.

**DENBORA-PASAK** ⋮




**1.**  
**Apaindu marrazkia.**

Galtzagorri elkarteko panpina Behinola aldizkaria irakurtzen ari da. Bere buruaren marrazkia egin du, baina ez du astirik izan margotzeko. **Koloretako irudia eredu hartuta, margotu zuri-beltzekoa.**



**2.**

**Bikiak.** Galtzagorri elkarteko panpina aldizkariaren 25. urteurrena ospatzen ari da. Hainbat argazki atera ditu, eta haietako bi bakarrik dira berdin-berdinak. **Asmatuko al duzu zein diren?**





Erantzunak: 2.-A-E



ipuina      elkartea  
 artikulua    aldizkaria  
 liburua      marrazkia  
 galtzagorri    behinola

# 3.

**Hizki salda.** Mainer sorginak zortzi hitz sartu ditu lapikoan, eta hizki guztiak nahasi. **Aurkitu itzazu!**

## Azoka



### 'Ezinbesteko nanoliburuak 4'

Amets handiak gordetzen dituzten liburu ttipiak, kutxa batean bilduak: *Amaren bidaiak, Erbia eta Dortoka, Bigarren aukera, Hankalata pirata, Opari ezberdin bat, Sandia-gidaria, Xirimiri eta Zazpi munstro eta katu bat.*

**Zenbait egile eta ilustratzaile**  
 Argitaletxea: **Pamiela eta Kalandraka.**



### 'Liburuak teilatuan'

Ohartu al zara? Arrainak leihoan igerian al dabiltza? Teilatua liburuz egina al dago? Eta semaforo bat al dago etxeko atean? Lehenengo begi kolpe-  
 ra, liburu honetako etxea arrunta iruditu-  
 tuko zaizu, baina arretaz behatzen ba-  
 duzu, berehala ikusiko dituzu hamaika gauza eta egoera xeble.

**Patxi Zubizarreta eta Irimarra**  
 Argitaletxea: **Ibaizabal.**



### 'Badugu zer eraiki. Bion etorkizunerako planak'

Aita-alaba batzuek elkarrekin eraiki-  
 ko dituzte beren bizitzako oinarriak.  
 Tresna bereziak erabiliz, oroitza-  
 penak eraikiko dituzte gerora mires-  
 teko; etxe bat, biak babesteko; eta  
 maitasuna, barrua berotzeko.


**Oliver Jeffers**  
 Argitaletxea: **Txalaparta.**



### 'Liburu bat irekitzen duzularik'

Liburu bat irekitzen duzularik, aben-  
 tura bat hasten da... Nahi baduzu as-  
 katu ezkutuko magia, zabaldu ezazu  
 azala, eta zorrotz ezazu begia. Eta,  
 nekaturik bazaude, itzuli nahi baduzu etxera,  
 liburua itxi besterik ez, sekretua horixe da.

**Caroline Derlatka eta Sara Ugolotti**  
 Argitaletxea: **Picarona.**



# BOST KARTA

Testua: **Miren Agur Meabe** • Marrazkia: **Kaiet Bengoetxea**

## Mendi magikoan

**T**xangoa egingo dugu.  
—Xan —diotsat aitari—,  
nora joango gara?

Bide bihurri bat seinatu du mapan.

—Ea lortzen dugun Zerukobaso izeneko toki honetara iristea.

Oinez hasi gara, martxa onean.

Karle hemen balego, loreak batuko lituzke. Amonak, berriz, irakurtzen emango luke eguna eta patata-tortilla izango luke prest bueltarako. Bion falta daukat, baina gabezia hori ez da zulo bat, barruan eraman ezin dudun burdinazko bola bat baizik.

Xerpa, gure aurretik, taldetxo

batengana arrimatu da, bi gizon eta mutiko bat. Mutikoak atzera begiratu duenean, hozkirria sentitu dut, hain ditu begi tristeak.

Joan eta joan egin gara.

Maldetan zaldiak dabilta bazkan eta, gure eskuinetara, errekatxo bat doa, urrezko belo bat dirudiena udazkeneko hostoak daramatzalako azalean.

Basora sartu, eta adartxoaren krakada entzun dugu gure boten azpian.

—Hamaiketakoaren ordua!

—abisatu digu Nereak.

—Ados —erantzun du Xanek.

Aspaldi honetan, nire gurasoak beti egoten dira ados. Izan



ere, «Zer da haserrea? Poxpolo erreka». Hala esaten zuen amonak. Nire ustez, nekatuta daude barrutik, neu bezala.

Buruko mina daukat, baina ez diet esango.

**Bi aste barru jarraituko du...**

**BOST KARTAK**

**matin**

ZIRTI-ZARTA, IKVSI TXINPARTA...



...POZA APARTA!



matin.